

## **ORRATZ-BEGIA. Andoaingo haurrak erbestean. (Intxorta elkarteak-Andoaingo Artxiboa eta Kultura Sailak)**

ORRATZ-BEGIA. Andoaingo haurrak erbestean. (Intxorta elkarteak-Andoaingo Artxiboa eta Kultura Sailak)

Inaugurazioa: **2026ko martxoaren 27a, ostirala, 18:00tan, Basteroko Erakusketa Gela.**

Erakusketa honek gerra zibilaren ondorioz ihes egin behar izan zuten hainbat andoaindarren bizipenak jasotzen ditu. Irudiak, gutunak eta beste objektuak, Frantzia eta Errusian egondako umeen lekukotzaz gain ikusgai izango dira aretoan, Intxorta 1937 elkarteak eta Andoaingo Udalean (Kultura sailak eta Artxiboaren eskutik) amankomunean antolatutako erakusketa honetan. Erakusketa apirilaren 30 arte zabalik dago.

Honekin lotuta, **apirilaren 14an, 18:00tan, Udal Artxiboak 2014an zuzendu zuen “Andoaingo haurrak erbestean” izeneko dokumentalaren beste emanaldi berri bat ikusiko da Basteroko Auditorioan**, erbesteratutako hainbat andoaindarren testigantzak jasotzen duena.

Andoain, 2026ko martxoak 23